



Arantza Quiroga

Eusko Legebiltzarreko presidentea
Presidenta del Parlamento Vasco

HALA DIO ETXEPAREK poema batean: *Heuscaldun den guiçon oroc, alcha beça buruya.*

2011ko otsail eta martxoan, eta Euskaltzaindiarekin batera egindako lanari esker, *Euskara, jalgi hadi plazara* erakusketa antolatu genuen Eusko Legebiltzarrean. Gure liburutegiko funtsen artean ditugun XVI eta XVII. mendeetako bitxi bibliografiko batzuk jarri genituen ikusgai, euskaraz inprimatu diren lehen lanetarikoak.

Pribilegioa izan zen, guretzat, Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* lanaren ale ezagun bakarra erakustea. Obra hori, 1545ean argitaratua eta euskaraz inprimaturiko lehen lantzat joa, Frantziako Liburutegi Nazionalean dago gordeta, eta estreinakoz atera da Paristik, hemen egoteko, gurekin, Euskadiko plaza handian.

Atseginez hartu dugu Euskaltzaindiaren lankidetzaren eraginkorra. Izan ere, instituzio hori etenik gabe ari da lanean gure arbasoen hizkuntza, gure tradizio kulturalaren erakusgarri bereziena, garatzearen alde.

DICE ETXEPARE en sus versos: *Heuscaldun den guiçon oroc, alcha beça buruya.*

...todo euskaldun levante la cabeza...

En febrero y marzo del 2011, y fruto de la colaboración con Euskaltzaindia, organizamos en el Parlamento Vasco la exposición *Euskara, jalgi hadi plazara*. En ella mostramos joyas bibliográficas de los siglos XVI y XVII de los fondos de nuestra biblioteca relacionadas con los inicios de la impresión en euskera.

Tuvimos el privilegio de contar con el único ejemplar conocido de *Linguae Vasconum Primitiae*, de Bernard Etxepare. Esta obra, publicada en 1545, y considerada la primera obra impresa en euskera, se conserva en la Biblioteca Nacional de Francia y ha salido por primera vez de París para estar aquí, con nosotros, en la gran plaza de Euskadi.

Nos complace haber contado con la activa colaboración de Euskaltzaindia, la Real Academia de la Lengua Vasca. Esta

Ohore handia da, zinez, ale honen bilakabidea aurkeztea. Etxeparek desira zuen bezala, dokumentu honen bidez agertu nahi dugu harro gaudela geure hizkuntzaz, geure sustraiez, geure bilakaera historikoaz.

Berealdiko aukera da oraingo hau euskal literaturaren hasierako obra garrantzitsuenetariko bat ikusi, begietsi eta miresteko. Gizartean duen garrantzia ongi agerian gelditu zen Euskal Ganberako erakusketak izaniko bisita-kopuru handiarekin. Milaka lagun hurbildu ziren Legebiltzarrera, Euskadiko bazter guztietatik. Horrek frogatzen digu euskal herritarrek berebiziko interesa dutela beren kulturaren jatorriak ezagutzeko, eta jakin-min zabala pizten dutela honelako piezek.

Ziur gaude, beraz, argitalpen hau are berotasun handiagoarekin hartuko dela, eta iturri bibliografiko emankorra bihurtuko dela, bai espezialistentzat eta bai normahirentzat ere. Nahi genuke, bizi-biziki, ekarpen hau onuragarri izatea euskaldun guztien kulturarentzat.

institución ejerce una perseverante tarea en favor del desarrollo de nuestra ancestral lengua, la prenda más singular de nuestra tradición cultural.

Es un auténtico honor presentar el devenir de este ejemplar. Pretendemos que, como deseaba Etxepare, este documento sirva de testimonio de lo orgullosos que estamos de nuestra lengua, de nuestras raíces, de nuestra evolución histórica.

Esta es una oportunidad única para poder ver, contemplar y admirar una de las obras más importantes de los albores de la literatura vasca. Su importancia social quedó demostrada con el gran número de visitas que tuvo la muestra expuesta en la Cámara vasca. Miles de personas se acercaron hasta el Parlamento, desde todos los rincones de Euskadi. Ello nos demuestra que los ciudadanos vascos están profundamente interesados en conocer sus orígenes culturales, y que piezas como estas despiertan un amplio interés.

Estamos seguros, por tanto, de que esta publicación será recibida aún con más entusiasmo y se convertirá en una fecunda fuente bibliográfica tanto para especialistas como para el público en general. Deseamos intensamente que esta contribución redunde en beneficio cultural para todos los vascos.